

hiruka

Uribe Kostako astekaria



Neguko berezia • 113. zenbakia 2017ko abenduaren 14tik 2018ko urtarrilaren 17ra arte

Gurdi bete
gogoz!

Aurkitu ezazu 1.200-tik gorako saltokietan!
¡Encuéntralo en más de 1.200 establecimientos!

Aurkitu ezazu 1.200-tik gorako saltokietan!
¡Encuéntralo en más de 1.200 establecimientos!



Getxo
bizi ezazu

Getxon
daukazu! 

**HIRUKA Koop. elk.****Helbidea:** Martikoen, 16, 2.a 48992 GETXO**e-maila:** hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171**Telefono-zenbakia:** 944 911 337**Publizitatea:** Idoia Ibarluzea / Idoia Lorente**Erredakzio-burua:** Irantzu Sagarminaga**Erredakzioa:** Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena**Argazkiak:** Hodei Torres**Testuen orrazketa:** Jon Gastelurrutia**Diseinua:** Artefakto**Kudeaketa:** Zortza Merino**Filmazioa eta Inprimategia:** BEPSA**L.G.:** BI-2022-2014 **ISSN:** 2386-98-95**Ale-kopurua:** 8.000 ale **CC-BY-SA****TOKIKOM**

www.hiruka.eus

Negua



Hauxe da 2017ko atzena.

Diotenez, datorrenari eta joandakoari begiratzeko sasoia dugu oraingoa.

Hala, 2018ko urtarrilaren 18an

argitaratuko dugu hurrengo zenbakia;

2015eko urtarrilaren 22an plazaratu zen lehenengo HIRUKA astekaria... Horrenbestez, hirugarren urteurrenaren bueltakoa izango da ondorengoa...

Bitartean, akorduan dauzkagu: paperezkoaren argitaratze-eguenak, sareko agerkariaren egunak, eta zenbakiak, zenbakiak... Halabeharrekoak. Biribilak batzuk; hala moduzkoak, beharbada, besteak... Izan dira sariak ere! Eta, zalantzarik ez izan, beti-beti, gurdia bete gogoz jardun dugula!

Negu-sasoiko berezia da zenbaki hau, joan den urtean egin legez, eta uda-sasoian ere egin bezala; aparteko garaia direlako biak ala biak.

Opariz eta oparitzeko proposamenez bete-beteta dituzu datozen orrialdeak, zuri begirakoak den-denak, Uribe Kostako euskaldun hori! Onena opa eta opetsi gura dizugu; gutxienez orain artekoak beste, urte berrian ere bai! Eta geugaz batera ospatzeko prest zaude? Ipiniko dugu 2018an lehenengo hitzordua? Hirugarren urteurrenean, zer egin beharko genuke? Gurdia bete ilusioz eta lanez, hel diezaiozun bada erronkari! Zure ekarpen, parte-hartze, bultzada, gura, eta proposamenen begira gaude... Gurditik tiratzeko ordua da! Gurdikada bete Uribe Kostako informazio, elkarriketa, erreportaje, argazki-bilduma edo albiste euskaraz bizitzeko! Hala izan dadin, hirugarrenean... tiratu!

Eskerrik asko, orain artean, alboan bultzaka izan zaituztegun den-denei... Urte berri on!!

**Erakunde laguntzaileak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

faceguk

? Gabonak non gurago dituzu: etxean ala kanpoan?

HAIFA ALRIFAIE SELAS

ALGORTA / SOPELA



Gabonak beti ospatu ditut etxean, familiagaz. Urteren batean, Gabon zahar gaua etxetik kanpo igarotzeko asmoa badaukat; leku ezberdin batean ospatu gura nuke. Hala ere, gusturago nago etxean; ondo konpontzen gara eta! Kar, kar.

ARAZNE BERAZALUZE ARRIOLA

URDULIZ



Gabonak familiagaz egoteko egunak direla uste dut; nik beti etxean ospatu izan ditut. Egia da lan handia dela dena antolatzea, denontzako janaria prestatzea...; baina, merezi du hori dena senideakaz egitea. Elkarregaz egiten dugu beti.

TXOMIN GEZURAGA MENÉNDEZ

ALGORTA



Gutxienez, egun pare bat kanpoan igarotzea gustatzen zait. Ez da beti horretarako aukera egoten; baina, tarteka, giroz aldatzea ondo dator. Beste batzuk ez bezala, nik askotan daukat senideakaz elkartzeko eta bazkaltzeko aukera.

ENDIKA LLAGUNO

GORLIZ



Lagun denekin elkartzea eta tabernaz taberna poteoa egitea da, niretzat, Gabonetako momenturik dibertigarriena. Etxean ere familiagaz ederto pasatzen dut. Nik jan eta edan baino ez dut egiten; amak egiten du egin beharreko dena.

MATXALEN PAREDES BENGOTXEA

ALGORTA



Familiagaz ospatzea nahiago izaten dut nik; asko gustatzen zait senide denak elkartzea, mahaiaren inguruan. Izan ere, urtean, egun bi baino ez daukagu elkarrekin egon ahal izateko; beste data batzuetan ezinezkoa zaigu elkartzea.

ARITZ TUDELA BELASKO

ITZUBALTZETA/ROMO



Egia esan, orain arte, etxean igaro izan ditugu beti; gustura egon ohi gara. Kanpoan, inoiz ez ditugu ospatu; beraz, ezin esan zelakoak izango liratekeen... Gabonetan kanpora joateko aukerarik ere ez dugu inoiz izan. Etxean gustura!

IGOR BASTERRETXE GANDARIAS

GERNIKA



Etxean. Beti etxean egiten dugu; ez gara kanpora joaten. Ezta planteatu bez! Azkenean, familia kanpoan daukadanez, egunetako batean, nire emaztearen senideakaz elkartzen gara; eta beste batean, nire anai-arrebakaz eta amagaz.

JESUS ANDRÉS ZARRAGA ABAD

ALGORTA



Gabonak etxean familiagaz igarotzea nahiago izaten dut; izan ere, aita-amagaz, anai-arrebakaz, seme-alabakaz, ilobakaz... elkar zaitezkeen egun bakarrak dira. Hala ere, ulertzen dut baten batzuek egun horiek kanpoan ospatu nahi izatea.

ARANTZA BITERI MARTÍNEZ DE ITURRATE

ELOSU (ARABA)



Gabonetako egun berezi horiek senideakaz elkarbanatzea eta denak batzea gustatzen zait. Egund berezi horietan mahaiaren inguruan elkarrekin egoten gara normalean; baina, azkenean, den-denak ez gara sekula ere batzen...

IKER LLONA KAMIRUAGA

BERANGO



Ohitura kontua izango da; baina, Gabonak familiagaz ospatzea gurago dut; beti egin ditugu etxean. Noizbait hondartzara edo horrelako lekuren batera joatea pentsatu dugu; baina, oraindik ez gara Gabonetan bidaiarik egitera animatu.

Aurkibidea

HIRUKATARRON AGURRA: HIRUGARRENEAN, ZER?	3
FACEGUK	4
GABONAK MUNDUAN BARRENA? Mundukatuen berbetan	6-7
ANSELMO MENTXAKA MAYORRI ELKARRIZKETA Gabonak orain dela...	8
OLENTZERORI ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA	9
HIRUKIRA OLGETAN Umeentzako denbora-pasak	12-15
UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	16-18
ARTILEZKO TXITA ETA MOKO URDINEKO AHATEA Ipuina	20-21
GARAICO ALBUM BAT	22-23
AGENDA Herriz herri	24-25
UMEEI BEGIRAKO AGENDA	26
NAGUSIENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	28-33
GASTRONOMIA-GIDA Gabonetako proposamenak	34-38
SUKALDEAN Intxaur-saltsa	38-39
ZEURE BURUARENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	40-41
HITZA EMANDA Urteari begirako bertso-sorta	42-43
ZOZKETAK	44-45
EROSKETAK ZENTZUZ ETA ARDURAZ EGITEKO AHOLKUAK	46
ESKER ONAK	47

hiruka ▶



AZALA: BERANGON, ABENDUAREN 6AN. Begira duzuen *Masusta* da; etxean bere begira utzi zituen *Txinpartagaz* eta *Naparragaz* batera asta-hirukotea osatzen dute. Julen Begoñaren aginduei jaramon egin egiten diete hirurek, zintzo eta neke barik, beti. Gabonetako edo bestelako ikuskizunetan parte hartzeko dei dakieke, gogoz eta prezio onean hurreratuko dira horietara. Horrez gainera, musika eskaintzea ere euren aukeren artean dago, dela tritixa, dela alboka...

harremanetarako: 691 482 697



+ Uribe kostako grabaketa estudioa

+ Diska eta make-ten grabazioak

+ Grabazioa, nahas-keta eta masterizazioa



+ Prezioak abesti kopuruaren arabera, ordu kopuruak egon beharrean

+ Kalitatezko materiala eta esperientzia urteak

+ Baserri

Gabonak munduan barrena



Nicolas Sánchez kolonbiarra

«Medellineko argien jaialdia izugarria da»

Joan den abenduaren 7an hasi ziren Gabonak Kolonbian, Kandelaren egunagaz, alegia. Andra Maria Sortzez Garbiaren omenezko jaialdia da hori eta herritarrek askotariko kandelak jartzen dituzte kaleetan. Gainera, Estatu mailan Gabonetako argien lehiaketa abiarazten dute egun horretan. Festibal hori «izugarria» dela dio Sánchezek, «Medellineko batez ere, horiek irabazten baitute lehiaketa beti». Hiri handietan, gainera, jaiotza handiak irudikatu ohi dituzte etxeen lorategietan, «bada horretan milaka euro gastatzen dituen jendea, eta ibilbideak antolatzen dituzte horiek denak bisitatzeko». Urtezahar-gauaren aurreko bederatzi egunean, Bederatziurrenak ospatzen dituzte. Horietan, familiaretan eta lagunartean egiten dituzte afariak; Gabon zahar gauean eta Eguberri-egunean, aldiz, gurasoen eta neba-arreben artean egiten dituzte. Askotariko jakiak prestatzen dituzte horietan, berbarako *lechona*k eta *tamalak*. Gabonetako gozokiak ere tradizio handikoak dira bertan, «etxe denetan aurki daitezke horiek». Urtezahar-gauean, osterara, giroa ez da horren familiakoa izaten. Sánchezek dioenez, egun hori lagunartean pasatzea da ohikoena. Etxaldeak alokatzen dituzte, eta jende-kopuru handia batzen da horietan; ondoren, oo:00ak joztean, aldeztatik egindako trapuzko panpina bati datorren urterako desioak itsasten dizkiote eta su ematen diote. ◀



Rozio Lucas uruguaiarra

«Afariak aire zabalean egiten dira, uda delako»

Uruguako Gabonak nahiko «paradoxikoak» direla dio Rozio Lucasek. Azaldu duenez, abenduan udan murgilduta daude bertan, eta kalean 30 graduko beroa egiten duen arren, merkataritzagune handiek Gabonetako zuhaitzak ipintzen dituzte, kotoizko elurrez inguratuta. Eguntako ospakizunetako janariak ez direla «zentzu handikoak» dio: turroia, budinak eta panettoneak egon ohi dira mahaigainean, txerrikume erre bategaz, «hau da, janari hiperkalorikoak». Errekiak etxeko lorategian egitea ohikoa da, familiaretan. Ostera, azkenburukoaren orduan, udan murgilduta daudela gogorarazteko, mazedonia izozkiagaz hartzea da tipikoena. Lucasek gogoratzen duenez, abenduaren hasieran umeek oporrak hartzen dituzte, eta etxetik ibiltzen dira diru eske, ondoren petardoak erosteko asmoz. Izan ere, Gabon-gauean ohikoa da Judas izeneko trapuzko panpina bat egitea, petardoak beteta, eta horri su ematea. Hurrengo egunean, abenduaren 25ean, opariak banatu ohi direla dio uruguaiarrak; hala ere, bere etxean hori beti urtarilaren 6an egin dela aitortzen du. Gabon zahar egunean, berriz, Montevideoko alde zaharrean batutako bulegoetako eta enpresetako langileek urtean pilatutako paper denak apurtu eta leihotik botatzen dituztela oroitzen du, «ondoren parranda handia egiten dute inguruan dagoen plaza batean». ◀

Gabonak ospakizun kristauak diren arren, urte akabuan askotariko jaiez goza daiteke munduko leku ezberdinetan. Hainbat ospakizun aurki daitezke, herrialdez herrialde eta txokoz txoko, jesusen jaiotza edo urte berriaren etorrera ospatzeko.



Nobuko Kani japoniarra

«*Urte amaieran
108 kanpai-hots
entzuten ditugu*»

Gabonak Japonian ez dira hemen ezagutzen ditugun modukoak. Festok kristau-izaera dute, baina herrialde horretan askotariko erlijioak aurki daitezke; horien artean sintoismoa da nagusi. Hala, Gabonak ospakizun laiko eta komertzial bihurtu dira bertan, eta koloredun argiak eta dekorazioak ikus daitezke kalez kale. Hala ere, denen artean, Urteberria (*Shōgatsu*) da Japoniako ospakizunik garrantzitsuena. Aspaldi, hori ez zetorren bat gure egutegikoagaz. Izan ere, 1873ra arte, Japoniako Urteberri-eguna urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran izaten zen, Txinako egutegiagaz bat eginez. Tradizionalki, etxeko garbiketa orokorra (*Ōsōji*) abiarazten dute abenduaren 13an eta, berandue- nez, abenduaren 31n amaitu behar dute. Horregaz, urteko 365 egunen lohikeriak akabatzen dituzte. Gabon zahar- rean, familia denak batzeko ohitura dago, eta elkarregaz afaltzen dute. Ohikoa da *toshikoshi-soba* (fideo-zopa) eta sardina erre- ak jatea egun horretan. Oste- an, 12:00etan, herrialdeko tenplu budista denek 108 kanpai egiten dituzte, urte berri- ri ondoetorria egiteko. Horietatik 107 amaituko den urtean egiten dira; azkena, aldiz, urtea hasi berri denean entzuten da. Egun horretan, esnatu bezain laster, japoniarrek eguzkia agurtzen dute, *mochi*-zopa gosaltu eta hiru eguneko ospaki- zunak abiarazten dituzte, familiarte- an. ◀



Jenny Mair eskoziarra

«*Hogmanay
ospakizuna oso
ezaguna da*»

Eguberri-eguna baino astebete lehenago, Gabonetako apaingarri- z josi ohi dituzte etxeak Eskozian. Gabon- egunean, familia osoa mezatara joan ohi da arrastian, umeakaz, baina, elizetako antzez- kizunez gozatzeko. Gauer- dian, aldiz, ohiko meza egiten da, «hausnartzera» bidera- tuta. Hala ere, gau horretan normalena da familiagaz afari berezitzoa egitea eta sof- an galtzerdiak ipintzea, tximiniaren ondoan. Modu berean, gailetak eta esne apurra ipini ohi di- tuzte Santa Clausentzat. Eguberri-egunean, ohikoa da txoko- latezko txanponak sartzea galtzerdietan, opariak banatzea eta familiagaz indioilar bete- a, izokin ketua eta budina baz- kaltzea, Oporto ardoagaz lagunduta, besteak beste. Hurren- go egunean, Boxing Day delakoa ospatzen dute, familiar- tean. Gabon zaharra oso ospetsua da Eskozian, Hogmanay izenez ezaguna. Lagunarte- an igarotzeko eguna da, festa- gi- roan, herriko plazan batzea, eskuetan edariak eta suziriak... Oste- an, gaueko 12:00ak aldera, ezagunen zein ezezagunen etxeetara joaten dira eskoziarrak, First Footing ohiturari ja- rraraituz. Horren arabera, norberak alkohol botila bat eroan behar du (whiskia, normalean), eta etxeko jabeari kopa bat eskaini behar dio. Urtarrilaren 1ean berriro familiagaz elkar- tzen dira, bazkari berezi baten inguruan; eta urtarrilaren 6a baino lehenago apaingarri denak kendu behar dituzte. ◀

«Sekula ez genuen pilotarik ikusi Errege-eguneko oparian»



Taloea piperminagaz irensten zuen Mentxakak; Franco agintera heldu zenetik ez zuen halakorik ikusi.

Erandiogoikoan 64 urte daroatza bizitzen Anselmo Mentxaka Mayorrek. Loiun jaio zen, orain dela 91 urte, 1926an; mutikoa zela, bertan bizi izan zituen Primo de Riveraren eta Francoren diktadurak, Espainiako II. Errepublika, Gerra Zibila eta lehenengo Eusko Jaurlaritza. Garai hartatik gehien gogoratzen duena gosea da. Horregatik, umetan, Gabonak gozatzen zituen.

Zelan gogoratzen dituzu umea zineko Gabonak?

Umeontzako alaiak ziren Gabonak, zer edo zer ezberdina izaten baitzen. Ilusioa geneukan jai horiek noiz etorriko ziren, zerbait jateko. Ez pentsatu beste munduko kontua zenik: lehenengo platera aza edo azalorea izaten zen. Gero, aparteko beste zerbait gehiago izaten zen beti, untxia, adibidez. Eta ohikoan usaindu ere egiten ez genuen ogi-apurra! Geneukan gosea izanda, ederra zen! Eta postreak! Bageneukan turroi hura, harria

“Turroia harria bezain gogorra zen! Eta horregaz poz-pozik geunden!”

bezain gogorra zena! Eta horregaz, poz-pozik geunden! Garai hartan ez genuen ezagutzen Olentzero. Hala, Errege-egunean, zapatak ipintzen genituen leihoan zer utziko zain. Aitari galdetu nion behin ea zelan sartzen ziren Errege Magoak etxera eta esan zidan urrezko giltza zutela eta ate denak zabal zitzaketela.

Lotan itxaroten zenuten?

Jakina! Gero txorakeriaren bat ipintzen ziguten, jostailuzko auto txiki-txoren bat, demagun, txapa mehe-mehekoa; oraindino plastikoa asmatu barik zegoen. Sokatik tiratu eta ederto zihoan autoa; pilak erabiltzen ziztuzten jostailuak ere ez zeuden garai

hartan. Horregaz poz-pozik genbiltzan. Sekula ez genuen pilotarik ikusi Errege-eguneko oparian, ezta pentsatu ere: 95 zentimo balio zuten! Hala, nik neuk hainbat egin nituen artilezko galtzerdiakaz: puntatik lotu, bueltak eman, korapiloa barrura sartu, trapaakaz bete, goitik josi eta horregaz jolasten genuen futboleant, alpagatakaz edo oinutsik.

Elurra erabiltzen zenuten jolasteko?

Gaur egun legez, hotz ikaragarriak izaten ziren, baina ondo pasatzen genuen. Halere, guk ez genuen hotzik pasatzen, amak zaintzen gintuen eta. Sondikako Izarza eskolan, ostera, bai: maistrak berarentzako estufa zeukan eta besteok ezer barik, hoztuta aguantatu behar genuen. Francoren garaian *Cara al Sol* abestu eta arrosarioa otoitz egitera behartzen gintuzten.

Etxean nork egiten zituen Gabonetako prestaketak?

Amak beti. Dena den, etxetik kanpo ere ibiltzen ginen, Urteberri-egunean. Lauzpabost ume batu eta auzokideengana eskatzera joaten ginen, «Urtebarri barri txarri belarri» abesten. Batzuek mandarina bat ematen ziguten, beste batzuek turroi-zatiren bat, eta horregaz zoriontsu ginen.

Suziriak botatzen ziren?

Halakorik ez dut sekula entzun; Gabonetan zarata gutxi zegoen kalean. Dantzaldirik eta halakorik ere ez zegoen. Festa gutxi izaten zen herrietan.

Familiak batzen ziren?

Ez pentsatu halakorik: etxekoak bai. Guk bagenituen osaba-izekoak eta lehengusu-lehengusinak, baina Gabonetan ez gindoazen eurengana. Umeontzat nahikoa zen aparteko zer edo zer jateko. Hura bai ilusioa! ◀



Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi





Olentzero eta
Mari Domingiren
borda

Basoko bidea, 24
Euskal Herria

**argi
hizki
ak** 2017

「a」

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN VI. LEHIAKETA


Algortan, abenduaren 19tik 29ra

ERAKUSKETA

VILLAMONTEKO KULTUR ETXEAN (Villamonte A-8, behekoa)

Astegunetan, 11:00-14:00 eta 18:00-21:30

Zapatuetan, 10:00-13:00



INFORMAZIO GEHIAGO:

www.argihizkiak.eus



HIRUKIRA OLGETAN

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:




Izeia

- Begiratu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola denek dute pareta, batek izan ezik. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?



MotroiLoa



Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia ikusten dituzu goiko irudian?

olgetan
euskaraz

sendi



Urtarriletik martxora,
asteen behin ordubetez.
2-5 urteko umeak eta
gurasoak batera.

GOBELA, ROMO,
SAN NIKOLAS
ZABALA & ZUBILETA

DOAN



ELURRA mëndian

Zenbat animalia ikusten dituzu?



S O I N U

musika eskola
Eusko Jauriaritzak baimendua

Telletxe Kalea, 34 • 48993 ALGORTA
944 607 955 • 688 630 146
soinu_me@yahoo.es
soinumusikaeskola.com

DIDAK
hamilton
IDIOMAS


Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF. 94 676 30 12 - info@didakhamilton.com

Domino zatiA

Bete itzazu fitxetako hutsuneak domino-zati hau zuzena izan dadin.



ZIRRI MARRA

Pintura

Marrazketa

Zeramika

kollagea

Eskulanak

Anboto 2, Getxo. Sarrera Aingeruaren Etorbidetik
TelF.: 944916186 - 688811696
e-maila: zirrimarrarte@gmail.com

Gabonetako Arte Tailerrak

3 urtetik aurrera 09:00 - 14:00

Hainbat aukera

Abenduak 26 - 29

Urtarrilak 2- 5





Abenduak 26 - Urtarrilak 5

Egun solteak

Sudoku Koloretua





Sudoku hau ondo osatzeko, goiko sei koloreen aukerak kontuan izanda, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Akorduan izan kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten azpilauki bakoitzeko.



Opari Festa

Ordena itzazu opari-kaxa hauek handitik txikira. Handienari **1** zenbakia eman, hurrengoari **2**... Txikienari **8** zenbakia ipini.



Opari-maitaleetan,

Uribe Kostako etxeetara ere laster helduko dira Olentzero eta Mari Domingi. Urtebete euren begira egon ostean, prest daukazue zapatak etxeko atarian ipintzeko? Hementxe daukazue hainbat ideia, etxeko txikien aurpegietan irribarrea sortzeko!

KITCHEN ACADEMY

SUKALDARITZA-ESKOLA

Errotatxu poligonoa, C12. GETXO
Tel.: 946 068 248
getxo@kitchenacademy.es
www.kitchenacademy.es



ADIN GUZTIENTZAKO SUKALDARITZA-IKASTAROAK

Umeentzako eskolak: Elikagaiak prestatu geure burua zaintzen ikasteko. 4-16 urte bitartekoen-tzat. Errezeta bakoitza prestatzeko eta dastatzeko aukera.

Astean behin ordu bat:
49 €/hileko - 134 €/hiruhileko.

Familientzako ikastaroa: Seme-alabakaz, bilobakaz... gozatzeko aukera. Lehenengo eta bigarren platerak zein postreak prestatzea eta dastatzea.

Domeketan, 2 ordu eta erdiko ikastaroa.
1 nagusi + 1 ume, 45 €.

Gazteentzako ikastaroa: Trinkoa; sukaldean ondo moldatzeko oinarritzko errezetak.
Hiruhilekoa, 180€.

ander deuna
ikastola

*haur hezkuntzarako
balxilegora*

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA
94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarte ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64 · 94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

oparizaleenentzat

INGENIOSO

JOSTAILU DIDAKTIKOAK

Bentatxu kalea, 3. SOPELA
Tel.: 94 656 59 92
www.ingeniosojuegos.com

- 1 Indioen *tippi* denda, adin guztientzat.
- 2 Kanika-zirkuitua, logika jokua, 8 urtetik gora.
- 3 Musika kutxa, 3 urtetik gorakoentzat.



NUEVE LUNAS

UMETXOENTZAKO PRODUKTUAK

Sarrikobaso, 36. GETXO
Tel.: 944 306 116 / 665 717 697
bebes@nuevelunasalquiler.com
www.nuevelunasalquiler.com

- 4 Kotxeko aulkia, arina eta erraz tolestekoa.
- 5 Biratu egiten den aulkia, atera daitekeen ume-eroatekoa.
- 6 Kontrako aldera begira dagoen kotxeko aulkia.





San Nikolas IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala
Euskalduna
Plurala
Demokratikoa

Autonomoa
Hezkuntza
eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta-Getxo
Tel: 944 305 478
ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

AIXERROTA BHI IKASTETXEA



Batxillergoak:

- Teknologikoa
- Natur eta Osasun Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela
(A eta D ereduak)
Hiru hizkuntzako hezkuntza-eskaintza

Informazio + : www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

OVEJA CREATIVA

DISEINU GRAFIKO, ILUSTRAZIO ETA WEB ZERBITZUAK

Tel.: 946 533 095 | 639 922 258

hola@ovejacreativa.com

www.ovejacreativa.com

7 **Martin, Lea eta Ganbarako liburu magikoa** 14,99 €

8 **Martin, Lea eta denboraren harria** 14,99 €



ARBI LIBURUAK

ERREALITATE AREAGOTUAN OINARRITUTAKO
LIBURU ELKARRERAGILEAK

Iker Burguera

contact@arbibook.com



www.arbibook.com

9 **ARBI 1 - ARBI eta Drako Herensugea** 17 €

10 **ARBI 2 - ARBI eta altxorraren Kutxa** 17 €

11 **ARBI 3 - ARBI eta azti misteriotsua** 17 €

12 **ARBI 4 - ARBI eta denboraren makina** 17 €



IXON

EUSKAL HAUR-LITERATURA

Alex Orbe Ferreiro/ Ana Jaka Garcia

www.alexorbe.com

13 **Ixon liburua, 56 orrialde.**
Ohiko liburu-dendetan, salgai 9,60 €





EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
HARAKIN MAISUAK

BASQUE LABEL HARATEGIAK
— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS

EUSKO LABEL
EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL


ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

GETXO:
CARNICERÍA ESTEBAN - Ganeta, 3 Romo-Las Arenas

SOPELA:
CARNICERÍA EIZMENDI - Doctor Landa, 1

hazi

Euskadi, mugatuen
EUSKO SAHULARITZA
GOBIERNO VASCO





Artilezko txita eta mo

Artilezko haril baten antza zuen Artik. Benetan, artilezko txita berde bat zen. Parkean zegoen galduta. Gabonetako argi koloretsuak urrunetik ikusten zituen: etxea ere han urrun zegoen. Non, baina?



z zuen entzun Kuake ahateak kris-kras egiten orbelak zapaltzean. «Nor zara zu?», esan zion Kuakek, begiak aldendu barik txita haren artiletik. Hanketan igartzen zuen Kuakek gaueko hotz gorria, eta pentsatu zuen txita hura berotan egongo zela artile haren barruan. «Nor zara zu?» galdetu zion berriro. Arti bildurrak zegoen, handia zen ahatea. Ez zuen inoiz ikusi ahate bat hain hurbiletik, beti joaten zen-eta Zaloagaz. Zaloak bost urte zituen, eta beti eramaten zuen berarekin, harik eta poltsikotik jausi zen arte. «Ai! Non egongo ote da Zaloa». Bildurra igarri zion Kuakek: «Kuake daukat izena nik». Txitak ezer esaten ez zuela-eta, segitu zuen: «Egundo ez dut ikusi zu lakorik. Hemen, parkean neu lakorik be ez dago, inork ez dauka urdina mokoa». Eta Artik: «Artik daukat nik izena».

Goizean Kuake esnatu eta zutitu zenean, jausi egin zen ia Arti Kuakeren bizkarretik behera, hain zegoen gozo lotan. «Ai, ai, ai!», esan zion Artik. «Ene, bada, barkatu, ahaztuta eduki dut gauean bizkarrean izan zaitudala», esan zion Kuakek, poza ezin ezkutatu Arti beragaz zegoela-eta. Parkeko zaindarien utzitako hazi-metan egin zuten gosaria, Artiri Zaloak ematen zion naren antzekoa zen. Hazi bat iruntsi eta hurrengo hartu bitartean, Artik Kuakeri esan zion etxera gura zuela, Zaloagaz, baina ez zekiela non zuten etxea, Zaloaren eskuan edo boltsikoan joaten zelako beti. Zer egin behar ote zuten Zaloagaz batzeko?



Iratze Ormatza Imatz

Bakioko eskolan ikasi nuen txikitan, gero Mungiako institutuan. Handik Ingalaterrara joan nintzen ingelesa ikasten lehengo, eta Soziologia gero, York eta Kent-eko unibertsitateetan. Gauza berri asko ikusi eta ikasita etorri nintzen etxera, eta sormenari ekin nion. Urte batzuk ikasten eta beharrean eman ostean, itzulpengintza-masterra egin, eta alde egin nuen etxetik. Geroago, Hego Ameriketara sei hilabete egin nituen motxilagaz, eta han bizitakoagaz liburua osatu nuen. Orduan hasi nintzen kaleratzen helduentzat: 22 ipuin ditut argitaratuta. Bost urteko alaba bat daukat; berarentzat eta zuontzat idatzi dut ipuina, zuen adina gorabehera.

ko urdineko ahatea

Kua-kua-kua entzun zuten goian, arbola biluzien gainetik, ahate-kuadrilla bat, hegan. Artik galdetu zion ea zergatik ez zuen eurekaz hegaz egiten. Kuakek egia aitortu behar izan zion goibel-goibel: «Nik moko urdina daukat, eta haiek, grisa. Lotsa ematen dit, nire moko urdina asko gustatzen bazait ere. Ez dut nahi haiek niri barre egitea; inoiz esan didate ea margotu dudan».

Berbetan zeudela, Zalaoa ikusi zuen Artik, eta atzetik joan zitzaion. Arin-arin zihoan Zalaoa. Kuakek bizkarrean hartu, eta hurbiltzen lagundu zion; goibelduta, Artik ikusi zuen ez zela Zalaoa. Etxekoak hartu zituen gogoan: «Ba, etxean ere, inork ez dauka artilezko larrurik; hasieran, barre egiten zidaten: bustiz gero, ez nintzela sekula sikatuko; udan beroegi izango nintzela; oso-oso itsusia, motza nintzela, eta holan. Nire begietara ezin politagoa da-eta, artilezkoa eta berde-berdea. Ez zidaten min egiten, ez, eta ez nien batere kasu egiten. Aspertu ziren, antza, horrela ibiltzeaz, eta eurekaz olgatzeko esan zidaten halako batean. Eta gaur arte. Oso ondo pasatzen dugu».

Moko griseko ahate batzuk ondora etorri zitzaizkien. Kuakek hegoa ipini zuen mokoaren gainean, ikusi ez zezaten; alde egiteko gogoia izan zuen, edo ezkutatzekoa. «Kaixo, gura duzue harrapaketa ibili, ala?». Eta Artik: «Barre egingo diozue Kuakeri?». Eta ahateetako batek: «Tira, inoiz esan diogu ea margotu duen. Txantxetan. Moko politagoa du-eta, guk baino». Kuakeri irribarre zabalduta zitzaion. Arineketan hasi ziren denak, jolasean, eta hara non ikusi zuen Artik Zalaoa. Arin-arin joan zen, Kuakek lagunduta. Zaloak biak ikusi, eta: «Arti, Arti!», eta eskuetan hartu zuen, eta laztan egin. Etxerako bidea hartu zuten. Gabonetako argiek baino dir-dir ederragoa zuen Artirentzat Zaloak. Kuakeri bihotza goibelduta zitzaion. «Etorri berriro» egin zion garrasi Kuakek. «Baaai» erantzun zion Artik.

«Kuake, eee!, Kuake, ezetz gu harrapatu» esan zioten, eta arineketan joan zen lagunak atzetik, pozez. ◀



Armintza (Lemoiz), 2006. © JOSU ALBERDI



Barrika, 1985. © GABI DE LA MAZA



Sopela, 1992. © MIKEL BEGOÑA



Plentzia, 1985. © GABI DE LA MAZA



Gorliz, 1999. © RAFA BATARRITA



Urduliz, 2009. © NOELIA GONZALEZ



Berango, 1985. © JURDANA ALTONAGA



Erandio, 1990. © GAUTXORI TALDEA

Orduko negu haiek, orain dela...

Elurretan olgetan, Erregeei begira, Olentzerori kantuka... Iraganeko negu-sasoietan ateratako argazkiak ekarri gura izan ditugu akordura, Uribe Kostako herri bakoitzeko lagun nekaezinen ekarpenari esker. 1964, 1985, 1990, 1992, 1999, 2006, 2009... Aspaldi-aspaldikoak edo oraintsuagokoak, baina ia denak orain dela hamar urte baino gehiago egindakoak. Olentzerorik ez zegoen garaikoak, are gutxiago Mari Domingirik! Olentzerori bidea egiten laguntzen hasi zitzaionekoa... A ze elurtea 1985eko hura! Eta osteko beste batzuk... Eta aurtongo negua ere elurrari deika hasiko bagenu?



Getxo, 1964. © GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



Leioa, 1985. © BEGOÑA ALVAREZ



Olentzero eta Mari Domingi, gurean

Barrika

Abenduak 23, zapatua

18:00 *Olentzeroren sekretua* antzezlan, udaltzeko plazan, karparen azpian.

19:00 Olentzero eta Mari Domingi plazara iristen direnean, euskal dantzen erakustaldia, umeei harrera, gaztaina-banaketa eta txokolate-edana.

Berango

Abenduak 24, domeka

18:30 Kalejira Berangoetatik pilotalekuraino.

Erandio

Abenduak 23, zapatua

18:30 *Lutxana*. Kalejira, auzoko kaleetan.

18:30 *Erandiogoikoa*. Kalejira, auzoko kaleetan.
20:00 Xalbor Dja, Euskadi plazan.

Abenduak 24, domeka

17:00 *Altzaga*. Kalejira. 20:00etan, antzerkia Irailaren 23a plazan.

17:30 *Astrabudua*. Kalejira, Ignacio Aldekoa ikastetxetik Mendiguren plazaraino.

Getxo

Abenduak 22, barikua

17:30 *Itzubaltzeta/Romo*. Ipuin-kontalaria, pailazoak eta elektrotzaranga, Gobelondon.

Abenduak 23, zapatua

11:30 *Andra Mari*. Musika, umeentzako jolasak eta txitxiburduntzia, Malakate parkean.

17:30 *Itzubaltzeta*. Umeentzako tailerrak, elizan.

18:00 *Neguri-Gobela*. Kalejira Gemika parkeraino.

18:30 *Areeta*. Umeen antzerkia. Eskola plazan.

19:00 *Algorta*. Ume bertsolariak eta Taberna ibiltaria taldea, San Nikolas plazan.

Abenduak 24, domeka

11:00 *Areeta*. Erakusketa, erromeria, Olentzerori harrera (Bizkaiko Zubian), euskal dantzak eta bertsolariak, Eskola plazan.

12:00 *Algorta*. Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxe plazan.

12:00 *Itzubaltzeta/Romo*. Azoka, Ibaiondo kalean, eta triki-poteo ibiltaria, 13:00etan.

17:00 *Andra Mari*. Kalejira, kiroldegitik Malakate parkeraino.

17:00 *Algorta*. Kalejira, Benantziotik San Nikolas plazaraino.

17:30 *Itzubaltzeta/Romo*. Kalejira, Kalamua kaletik Santa Eugenia plazaraino.

18:30 *Areeta*. Kalejira, Eskola plazatik hasita.

Gorliz

Abenduak 24, domeka

18:00 Kalejira, Ibarretatik pilotalekuraino.

Leioa

Abenduak 24, domeka

17:00 *Herrigunea*. Kalejira, Elexalde Errotatik Kultur Leioara. Horren ostean, harrera.

17:30 *Lamiako*. Kalejira, metro-geltokitik hasita.

18:00 *San Bartolome*. Harrera, kulturagunean.

18:00 *Txorierri*. Kalejira eta harrera, Txou aretoan.

Lemoiz

Abenduak 24, domeka

Arastian. Olentzero eta Mari Domingi herrian ibiliko dira. Antzerkia ere egongo da.

Plentzia

Abenduak 24, domeka

18:40 Kalejira, zubitik hasita. Gero, 19:00etan, antzezpina hasiko da.

Sopela

Abenduak 24, domeka

17:00 Kalejira, Larrabasterrako Urgitxietia plazatik udaltzeraino.

Urduliz

Abenduak 24, domeka

17:00 Kalejira, Igeltzera inguruko aparkaleku publikotik Elortza eskolaraino.



Gabonetako hainbat ekitaldi, herriz herri

Barrika

Abenduak 15, barikua

19:00 Impromptu taldearen eta Naroa Intxausti sopranoaren kontzertua, Andra Mari elizan. Doan.

Abenduak 26, martitzena

19:00 *Overrum* animaziozko film laburra, Ander Deuna aretoan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Urtarrilak 7, domeka

11:30 Gospel-kontzertua, Andra Mari elizan. Doan.

Berango

Abenduak 15, barikua

20:00 Otxandategi abestaldearen kontzertua, Berango Antzokian. Sarrera, doan.

Abenduak 17, domeka

18:00 *Nor da Olenzero?* (Potxin eta Patxin) ikuskizuna, Berango Antzokian. Doan.

Abenduak 22, barikua

20:00 Otxandategi dantza-taldearen erakustaldia, Berango Antzokian. Sarrera, doan.

Abenduak 26, martitzena

18:00 *Erromirria* (Txirri, Mirri eta Txiribiton) ikuskizuna, antzokian. Sarrera: 1 euro.

Abenduak 28, eguena

18:00 *Kalean atso, etxean uso* (Patata Tropikala) antzezlan, Berango Antzokian. Sarrera, doan.

Abenduak 29, barikua

19:00 Ballet-ikuskizuna, Maria Nikolayeva talde errusiarragaz. Berango Antzokian. Sarrera: 3 euro.

Abenduak 30, zapatua

19:00 *El Pel*-ren umore-bakarriketa, Berango Antzokian. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Urtarrilak 4, eguena

18:00 *Toronbole familia* (Antzezizuna) txotxongilo-antzezlan, Berango Antzokian. Doan.

Urtarrilak 5, barikua

19:30 Errege Magoen kabalgata, Berangoetatik pilotalekuraino. Ostean, disko-festa, Xalbor Diagaz.

Urtarrilak 7, domeka

18:00 *Kontukantari* (La Enana Naranja) txotxongilo-antzezlan, Berango Antzokian. Doan.

Erandio

Abenduak 19, martitzena

19:00 Kontzertua. Erandioiko Musika Eskolagaz, Astrabuduko Josu Murieta kultur etxean. Sarrera, doan (gonbidapenagaz).

Abenduak 20, eguaztena

19:00 Kantu-jira, Astrabuduko kultur etxetik.

Abenduak 22, barikua

20:00 Diskoteka mugikorra (Keima), Erandioigoikoko Euskadi plazan. Euskaraz. Doan.

Abenduak 23, zapatua

19:30 Mendibaiarte eta Altzaga abesbatzen kontzertua, Altzagako San Agustín elizan. Doan.

Abenduaren 26tik 28ra

19:15 Umeentzako ikuskizunak, Altzagako kiroldegian. Euskaraz. Sarrera, doan.

Abenduak 26, martitzena

20:00 Erandioiko Musika Banda eta musika-eskolako ikasleak, Astrabuduko kaleetan.

Urtarrilaren 2tik 4ra

19:30 Umeentzako antzezlanak, Astrabuduko Josu Murieta kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

Getxo

Abenduak 15, barikua

20:00 Gabonak munduan XIV. kontzertua, Ondarreta abesbatzagaz eta ganbera-orkestragaz, Algortako Erredentorearen elizan. Sarrera, doan.

Abenduak 19, martitzena

20:00 Gabonak munduan XIV. kontzertua, Ondarreta abesbatzagaz eta ganbera-orkestragaz, Areetako Santa Ana elizan. Sarrera, doan.

Abenduak 22, barikua

20:00 Areetxo abesbatzaren emanaldia, orkestragaz. Areetako Santa Ana elizan. Doan.

Urtarrilak 5, barikua

17:30 Errege Magoak, Andra Marin eta Algortan.
19:30 Errege Magoak, Areetan eta Romon.

Gorliz

Abenduak 23, zapatua

20:30 Lirain eta Lirain Txiki abesbatzak, elizan.

Abenduak 24, domeka

12:30 Gabon-kantak Lirain abesbatzagaz, herriko kaleetan zehat.

Leioa

Abenduak 26-30

18:00 Gabonetan Antzokira zikloa, Kultur Leioako entzungelan. Sarrera: 3,75-5 euro. Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

Urtarrilak 3 eta 4

18:00 Ipuin-kontalaria. Gonbidapenagaz.

Urtarrilak 5, barikua

18:30 Errege Magoel harrera, Kultur Leioan.

Lemoiz

Abenduak 17, domeka

10:00 Mendi-irteera, Etzandari taldeagaz. Izen-emaitea eta informazioa: 688 602 121 (Marian).

Abenduak 26, martitzena

17:00 *Pirata Garrapataren abenturak* antzezlan, Urizarreko gelan. Doan.

Urtarrilak 2, martitzena

17:00 Ipuin-kontaketa, Urizarreko gelan. Doan.

Plentzia

Abenduaren 15etik 17ra

Gabonetako II. Artisautza Azoka, Gohi Portal kultur etxean. Informazio gehiago: kultura@plentzia.eus

Abenduak 15, barikua

19:00 Kantaguneren entsegua, Kristo basilizan.

19:30 Bertso-jira musikatua, Onintza Enbeitagaz eta Jon Maiagaz, elizako plazaatik abiatuta.

Abenduak 22, barikua

19:00 Kantu-jira, elizako plazan hasita.

Sopela

Abenduak 16, zapatua

21:30 Kanpai aurreratuak, Udaletxeko plazan.

Abenduak 22, barikua

19:00 *Olenzeroen sekretua* antzezlan, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 3 euro, umeak; eta 5 euro, helduak.

Abenduak 24, domeka

11:30 *Gabonetako iratxoak* kale-antzerki ibiltaria, herriko kaleetan.

Abenduak 26, martitzena

19:00 *Kontu Kantari II* txotxongilo-kontzertua, Kurtzion. Sarrera: 3 euro / 5 euro.

Abenduak 28, eguena

16:30 *Astonauta tronpeta flauta* (Ene Kantak) ikuskizuna, Udaletxeko plazan. Sarrera: 4 euro, umeak; eta 6 euro, helduak.

Abenduak 29, barikua

21:00 Semilla Negra taldearen kontzertua, Udaletxeko plazan. Doan.

Abenduak 30, zapatua

18:00 Ballet-ikuskizuna, Maria Nikolayeva talde errusiarragaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro, umeak; eta 5 euro, helduak.

Abenduak 31, domeka

17:00 San Silvestre lasterketa, Urgitxietatik abiatuta. Informazioa: www.triatlonsopelana.org

Urtarrilak 1, astelehena

13:00 *Urbe barri barri* umeentzako animazioa, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Doan.

Urtarrilak 2, martitzena

18:00 *Izar* (Marie de Jhong) ikuskizuna, Kurtzio kultur etxean. Testu barik. Sarrera: 4 euro, umeak; eta 6 euro, helduak.

Urtarrilak 3, eguaztena

18:00 *Jon Braun* (Anita Maravillas) antzezlan, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 4 euro, umeak; eta 6 euro, helduak.

Urtarrilak 4, eguena

16:00 *Goazen 4.0*, Kurtzion. Sarrera: 6 euro.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Errege Magoen kabalgata, Larrabasterratik udaletxera arte.

Urduliz

Abenduak 23, zapatua

18:00 *Coco* animazio-filma, kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Abenduak 30, zapatua

18:00 *Paddington 2* filma, kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Umeen Gabonetako parkeak eta ludotekak



Barrika

Abenduak 22, barikua

Gabonetako apaingarrien tailerra

Ordua: 18:00.

Lekua: Udal-liburutegia. Doan.

Berango

Abenduak 26-29

Gabonetako egonaldi irekiak

Ordutegia: 10:30-13:30.

Lekua: Ludotxikia (2012-2014 urteen artean jaiotakoak), Berangoeta kultur etxean; Ludoteka (2009-2011) eta Ludokluba (2006-2008), Merana eskolan; eta Gaztelekua (2000-2005). Txangoak ere egingo dituzte.

Informazioa: euskara@berango.org

Abenduak 27-28

Umeen Parkea

Ordutegia: Eguaztena: 11:00-13:00 eta

17:00-20:00. Eguena: 11:00-15:00.

Lekua: Pilotalekua. Doan.

Abenduak 30, zapatua

Gabonetako kotilioa 2000-2008 urteen artean jaiotako neska-mutilentzat.

Ordutegia: 20:00-23:00.

Lekua: Santa Anako kultur etxea. Doan.

Urtarrilak 2, martitzena

Gazte Parkea

Ordutegia: 18:00-21:00.

Lekua: Pilotalekua. Doan.



Erandio

Abenduak 22-23

Umeen Parkea, Erandiogoikoan

Ordutegia: Barikua: 16:00-20:00. Zapatua: 11:00-14:00 eta 16:00-18:00.

Lekua: Gizarte-etxea. Doan.

Abenduak 26-29

Umeen Parkea, Altzagan

Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Lekua: Kiroldegia. Doan.

Abenduak 26-29 eta urtarrilak 2-5

Gabonetako Tailerrak (6-12 urte)

Ordutegia: 11:00-13:00.

Lekua: Altzagako eta Astrabuduko udal-liburutegiak. Euskaraz. Doan.

Urtarrilak 2-5

Umeen Parkea, Astrabuduan

Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Lekua: Kiroldegia. Doan.

Getxo

Abenduak 26-29 eta urtarrilak 2-4

Gabonak Kultur Etxean

Ordutegia: 11:00-19:00.

Lekua: Itzubaltzeta/Romoko kultur etxea.

Izen-ematea: Abenduaren 22ra arte, Algortako eta Romoko kultur etxeetan.

Abenduak 16-urtarrilak 7

Getxolandia umeen parkea

Lekua: Areetako Xake plaza.

Bidaia: Gehienez, 1,50 euro. Bost bidaia txartela: 5 euro.

Gorliz

Abenduak 21, 27 eta 29

Ludoteka

Ordutegia: Lehenengo eguna: 17:00-19:00.

Azken egun biak: 11:00-13:00.

Lekua: Kultur etxea.

Abenduak 22-31 eta urtarrilak 2-5

Gaztelekua

Ordutegia: 18:00-21:30 (Jaiegunak: 18:00-21:00).

Abenduak 26-29 eta urtarrilak 2-5

Umeen Kirol Campusa

Ordutegia: Kirol bakoitzeko ordubete.

Lekua: Udal-instalazioak.

Izen-ematea: Abenduaren 20ra arte.

Abenduak 28 eta urtarrilak 4

Umeen Parkea

Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Lekua: Elizako plaza.

Leioa

Abenduak 26-28 eta urtarrilak 2-4

Gabon Gazteak

Ordua: 17:00-20:30.

Lekua: Aterpe Leioa Gaztegunea. Doan.

Urtarrilak 2-5

Gabonetako Parkea

Ordua: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Lekua: Kandelazubieta kiroldegia. Doan.

Lemoiz

Abenduak 27, eguaztena

Gabonetako Jolas Parkea

Ordua: 16:30-20:30.

Lekua: Armintzako frontoia.

Abenduak 28, eguena

Gabonetako txotxongilo-tailerra

Ordua: 17:00-19:00.

Lekua: Armintzako kultur etxea.

Urtarrilak 4, eguena

Gabonetako bota egiteko tailerra

Ordua: 17:00-19:00.

Lekua: Armintzako kultur etxea.

Sopela

Abenduak 26, martitzena

Talo-tailerra gaztelekuan (13-18 urte)

Ordua: 17:00-20:00.

Informazioa: gaztelekua@sopela.eus

Abenduak 27, eguaztena

Puzgarriak

Ordua: 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Lekua: Udaletxeko plaza. Doan.

Abenduak 29, barikua

Tailerrak

Ordua: 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Lekua: Udaletxeko plaza. Doan.

Urte amaierako jaia gaztelekuan

Ordua: 17:00-20:00.

Informazioa: gaztelekua@sopela.eus

Urtarrilak 2-5

Gabonetako egonaldi irekiak

(4-10 urte) eta gazteentzako ekintza bereziak (11-18 urte)

Ordutegia: 09:00-14:00.

Informazioa: Kurtzio kultur etxea.

Urtarrilak 4, eguena

Gabonetako bota egiteko tailerra

Ordua: 17:00-19:00.

Lekua: Armintzako kultur etxea. Doan.

Urtarrilak 4, eguena

Gabonetako bota egiteko tailerra

Ordua: 17:00-19:00.

Lekua: Armintzako kultur etxea.

Urduliz

Abenduak 26-29

Gabon Parkea

Ordua: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Lekua: Iparralde kiroldegia. Doan.



Gabonetako osagai egokiak

Algortako Ardaska elikagai- eta kosmetika-dendak zenbait jaki eta edari gomendatu ditu Gabonetan gozatzeko. Lucia Aragonesek egin du aukeraketa.



LA MAJA OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRAK

Olio-edizio mugatuak, Tosca, Arróniz eta Koroneiki oliba-motakaz eginak.

GUMENDI PRODUKTUAK

Lizarrerriko eta Erriberako kontserba, barazki eta fruta fresko eta ekologikoak.

MAHALA BEHI-ESNEDUN IZOZKIAK

Hainbat zaporetakoak: txokolate, gazta, limoi, marrubi, hur, kafe eta banilla.

LA DESPENSA DEL GOURMETEKO

Marianito bermuta: ezkaia, ipurua, laranja heldua eta kardamomoa.

Ardaskan elikagai eta kosmetika arduratsuak erabiltzen dituzte, Aragonesek azaldu duenez. Gai biologikoak eta ekologikoak izateaz gainera, «zentzua» duten produktu denak sustatzen dituzte: «bertoko eta bidezko merkataritzako produktuak, zero kilometrokoak, iraunkorrak eta abarrak». Ardaskako produktu denak «gizartearekiko edo ingurumenarekiko errespetuan oinarritzen dira».

Modu berean, ondo behatzen dituzte euren produktuak, «osasuntsuak izan daitezen». Hala, Aragonesek nabarmendu duenez, «bezeroak ez du holakorik begiratu beharrik, aurretik guk egin baitugu». Hornitzaileakaz harreman estua izaten dute, ondo ezagutzeko saltzen dutena; dendariak ere bertako produktuak jaten dituzte. Kosmetikan ere lortu dute osagaien %90 naturalak izatea. ◀



Algortako etorbidea, 90
946 120 618




Gabon hauetan, **Ardaskaren** eskutik,
La Maja kalitate handiko **olio-sorta**
irabaz dezakezu.

HIRUKAlagun edo **bazkide** bazara
eman izena **abenduaren 31** baino lehen.



ZOZKETAN

PARTE HARTZEKO:



e-mailez
administrazioa@hiruka.eus



telefonoz
94 491 13 37



ogerkariaren bidez
<http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>

Oparien eskaria et

Kaleak argiz eta musikaz beteta, Uribe Kostako dendak jendez lepo... Orrialde hauetan, eskualdeko herrietako saltokietan eros daitezkeen hainbat produktu aurki ditzakezu, zure etxetik hur; opariak bertan eskatzeko aukera izango dute Olentzerok eta Mari Domingik.

OSO



GIZONENTZAKO MODA

Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osoalgorta@gmail.com

- 1 **Schmoove botinak.**
Blind British Brogue 179 €
- 2 **Motorzaleen jaka.**
Petrol Industries 129,95 €



HER



EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA

Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

- 3 **UGG. Classic Boots** 200 €
- 4 **Berokia, Vila Clothes** 99,95 €



Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
946 764 625
www.irunbat.net

Marlitzon eta
zapatuetan
ESKaintza
BEREZIA!

Gora
Sopelako jaiak!

Eraikuntza zerbitzu integralak

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

xetik hur egiteko

LOBON

BITXITEGIA

Akilino Arriola, 1. SOPELA
Tel.: 946 765 406

- 5 Quicksilver erlojua
- 6 Urrezko eta erdibitxi harrizko eraztuna
- 7 Urrezko zintzilikaria



SNOOPY

OPARI ETA OSAGARRIAK

Telletxe, 9. ALGORTA
Tel.: 944 600 972
www.snoopyalgorta.com

- 8 Hazi-zakua 11,95 €
- 9 Garagardoa egiteko upeltxoak 33 €
- 10 Kaktus edalontzia 3,95 €






2018rako Egutegi

Pertsonalizatuak

Zure argazkiekin
pertsonalizatu!



Villa de Plentzia, 6 - 48930 AREETA
www.cianoplan.es • 902 103 763

KANTXA

KIROL MODA

Torrene, 4. ALGORTA

Tel.: 944 911 882

www.kantxa.eus

- 11** Gizonentzako polarra ~~149,90 €~~
119,92 €
- 12** Adidas emakume-zapatilak ~~69,95 €~~
62,95 €
- 13** Edozeinentzako Asics zapatilak
70 € 56 €



CIEN PIES

ZAPATA-DENDA ETA OSAGARRIAK

Akilino Arriola, 7. SOPELA

Tel.: 946 760 894

- 14** Umeen Converse zapatillak 40,90 €
- 15** Emakumeentzako larruzko takoi-botak 89 €
- 16** Emakumeentzako neguko botak 40,90 €



- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



Axpe ibaiertza 28A behe, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 • 94 467 17 13
luberry@luberry.biz • www.luberry.biz

ARTOLOZAGA ANAIAK Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!



DANATARIK



MODA ETA OSAGARRIAK

Enrique Urrutikoetxea, 2. SOPELA
Tel.: 946 754 998

- 23 Tiro luzeko prakak
- 24 Ilezko berokia
- 25 Kamiseta



ALDAY

ARTISAU-TAPIZTEGIA

Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa, erakusketa eta tailerrak.

Oihalak eta margoturiko orma-paperak, metroka salgai.



IÑAKI**BITXITEGIA**

Villamonte, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345

- 26 **Raymond Well** gizon-erlojua. Altzairuzko eskumuturrekoa.
- 27 **Diamante eta urrezko** eskumuturrekoa.
- 28 **Diamantea eta esmeralda** dituen urre zurizko eraztuna.

**GAURKO****GIZONENTZAKO MODA**

Juan Bautista Zabala Kalea, 9. ALGORTA
Tel.: 944 60 70 84

- 29 **Gizonentzako zapatilak** 95,00 €
- 30 **Bufanda** 49 €
- 31 **Puntu-jertsea** 74,00 €



4BIDE PINTURAK

mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA · 94 676 29 92 · 4bidepinturak@gmail.com

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

**gura izanez gero,
etxera eroango dizugu egunkaria!**

Zer eta non jan: G

PLATER NAGUSIAK

Juan Mari harategia

Tel: **944 644 125**. Mesedeetako Ama, 31. AREETA



Eskaintza
BEREZIAK

Roastbeef-a

OSAGAIK: Txahal- edo behi-solomoa (hezur bako txuleta).

GURE ESKAINTZA: Gabonak lagun eta familia artean bazkaltzeko eta afaltzeko garaiak dira. Hala, normalean jaten ez diren jakiez gainezka egon ohi dira gure mahaiak egun horietan. Askotan, plater horiek denak norberak prestatzen ditu, etxeko sukaldetan; oster, beste batzuetan aldeztu aurretik prestatutakoak erosten dituzte askok. Halakoen egundoko aukera dugu Areetan, Juan Mari harategian. Urte osoan eskaintza zabala izaten dute, baina, garai honetan, produktu

gehiago izaten dituzte aukeran. Denetarik aurki daiteke bertan: foie-ak, bakailaoa, piper beteak, kroketak, ogi bereziak, antxoak, ahuntza, indioilarra, kapoia, galperra eta roastbeefa, besteak beste. Azken horien mota bi eskaintzen dituzte: txahal- edo behi-solomoarena, «zapora oso ezberdinak dituztelako».

ERRESERBAK: Beharrezkoa ez den arren, gordetzeko eskatzea gomendatzen dute, platera fin-fin prestatu ahal izateko.

Portu Zaharra

Tel: **944 602 033**. Portu Zaharra, 35. ALGORTA



Olagarro kurruskaria

OSAGAIK: Olagarroa, arrautza, irina, piper gorri konfitatua, tomate-tartariarra, belar onak, txipiroi-tinta, ogia eta olio.

GURE ESKAINTZA: Sorpresaz beteta hasiko dituzte Gabonak Portu Zaharra tabernan. Hala, gastronomiari lotutako eskaintza berezi bat prestatu dute bertaratu diren denentzat. Arduradunek azaldu dutenez, azkenaldian olagarroa askotan eskatzen dute bezeroek tabernan. Horretan oinarrituta, plater berezia mahai-gaineratuko dute egunotan: tenpura egindako olagarro kurruskaria, txipiroi-saltsaz bustia eta piper gorri konfitatuz hornitua. Gainera, abenduaren

14an eta 22an Oliver Magoaren ikuskizunaz gozatu ahal izango da Portu Zaharreko erdigunean, 19:45etik aurrera. Oster, urte berriaren etorreragaz batera, pintxo-potea abiaraziko dute barikuetan, 19:00etatik 22:00etara. Hala, bezero denek pintxo bat jasoko dute edari bakoitzeko; azaldu dutenez, egunero lau mota egongo dira aukeran. Ondoren, gaueko lehenengo konbinatuak bertan hartzera gonbita egin dute, errezeta bereziak dituzte eta.

GOSARIAK,
PINTXOAK...

Giro eta musika
onena!



Laiak

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Bentatxu 2 • SOPELA
94 676 03 28

astronomia-gida

Gure Etxea

Tel: **944 636 880**. Aurrezki Kutxa, 14. ITZUBALTZETA



Onddo-nahaskia

OSAGAIK: Boletus onddoak, tipula gorria, arrautzak, gatza, olioia eta Pedro Ximenez ardoa.

GURE ESKAINTZA: Bere su-kaldaritzan tradizionalagatik oso ezaguna da Itzubaltzeta/Romoko erdigunean dagoen Gure Etxea taberna. Bertako arduradunak azaldu duenaren arabera, egunero egiten dituzte eskaintza bereziak, eta barra mokaduz eta pintxo beteta izaten dute. Orain, gainera, txoko berria zabaldutako bertan: 8 lagunentzako mahaia zabala dauka. Hala, gura duenak afariak edo bazkariak lasaitasun osoz egiteko aukera izango

du hantxe. Aurten boletusez egindako onddo-nahasia ekarri dugu orriotara; 14 euroan goza daiteke plater paregabe horretaz. Hala ere, denetarik dasta daiteke Gure Etxea tabernan, berbarako askotariko nahaskiak, legatza, bakailaoa labean eta, zelan ez, txuleta erreak.

ERRESERBAK: Aldez aurretik erreserba egitea gomendatu dute, egun bi lehenago, gutxienez. Izan ere, lekua azkar betetzen da egunotan.

Motagane

Tel: **944 670 007**. Leioa-Unbe errepidea, 34. ERANDIO



Barraskiloak saltsan

OSAGAIK: Etxeko piper txorizeroa eta tipula gorria, pernila (urdaiazpikoa) eta barraskiloak.

GURE ESKAINTZA: Garaiotako eta inguru honetako ohiturari helduta, aurten ere barraskiloak saltsan eskainiko ditu egunotan Erandioko Motagane Txakolina jatetxeak, 12 euroan. Gainera, inguruko produktuek egindako indaba-janak ere egingo dituzte, 22 euroan. Eta jakinarazi dutenez, indabak Goierrikoak dira. Izan ere, jatetxe honetan «kilometro zero» filosofia darabilte, hau da, etxeko edo inguruko ortuetako produktuak erabiltzen dituzte

euren eskaintza prestatzeko, sasoian sasoioak. Barraskiloak eta indaba-janak gainera, Errege-egunetan bazkari berezi emango dutela iragarri dute arduradunek, 38 euroan.

ERRESERBAK: Bazkarien eta afarien erreserbak aldez aurretik egitea gomendatzen dute Motagane Txakolina jatetxe arduradunek, eta gutxienez astebete lehenago deituta, hobeto.

www.txakolimotagane.com



Zer eta non jan: G

PLATER NAGUSIAK

Dandaka jatetxea

Tel: **944 530 006**. Avanzada errepidea, 35. ERANDIO.



Txuleta

OSAGAIK: Behiaren edo idiaren txuleta, piper gorriak, patatak eta gatz.

GURE ESKAINTZA: Dandaka jatetxeak eguneko menu gozoa ematen du, aste barruan 10,80 euroan. Aste-akabuetan, oster, jakien eta edarien karta eskaintzen dute. Taldeentzako menuak ere prestatzen dituzte, aurretik eskatuz gero. Menuan zein kartan, Erandiogoikoko Dandaka jatetxean sukaldaritza tradizionalako menu landuak prestatzen dituzte, zein baino zein gozoago. Dena den, etxeko berezitasuna egiten duten bertoko okela da. Gainera, ohiko

otorduez aparte, tabernako barran pintxoak eskaintza zabal eta erakargarria daukate, mokadutxoren bat edo beste jan gura duenarentzat. Horrez gainera, aurtengo Gabonetan ere menu berezia eskainiko dute Errege-egunerako.

ERRESERBAK: Komeni da gordezko eskaera aurretik egitea; aste-akabuan edo talde handian joateko, batez ere.

Dandakajatetxea.com
dandakajatetxea@gmail.com

Goikolanda taberna

Tel: **944 741 540**. Jose A. Agirre plaza, 1. ERANDIO.



Tomate-pizza

OSAGAIK: Deshidratatutako tomateak, tipula karamelizatua, piper berdea, atuntxikia eta mozzarella.

GURE ESKAINTZA: Goikolanda tabernaren berezitasunak dira bertan egindako artisau-pizzak, hanburgesa ederrak eta hainbat motako errazioak, nachoak legez. Hamaika aukera dituzte pizzetan eta hanburgesean, nork bere gustukoak aukera ditzan. Dosi txikiko gastronomia-eskaintza osatzen du tabernako pintxo-eskaintza zabal eta ikusgarriak. Modu berean, eseri eta patxadaz bazkaldu gura duenak eguneko menu gozoa dauka, astegunetan

10,80 euroan. Aste-akabuetan, oster, menu berezia eskaintzen dute, 16 euroan. Taldeentzako menuak ere prestatzen dituzte, aurretik eskatuz gero. Menu denetan euskal tradizioaren etxeko sukaldaritza goza daiteke. Errege-egunean menu berezia izango dute.

ERRESERBAK: Aste-akabuko eta talde handientzako menuetan, komenigarria da erreserba aurretik egitea.

Facebook.com/goikolandajatetxea



Santa Eugenia Kalea 13

ERROMO

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

Eguberri on!



AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

astronomia-gida

Tamarises Izarra

Tel: **944 910 005**. Ereaga kaia, 4, 1. ALGORTA.



Zigala salteatuak

OSAGIAIAK: Parmentier patata, gatza, piper beltza, tipula, karmeloia, oliba-olio estratua, salda, arto-irina, barazkiak, perrexila.

GURE ESKAINTZA: Tamarises Izarra jatetxeak bosgarren urtemuga bete du; denbora horretan frogatu duenez, euskal gastronomia onenaren tradizioa eta goi-mailako sukaldaritzaren berrikuntzak uztartzen ditu. Sasoian sasoiko bertoko produktuak dasta daitezke, bista ikusgarriez gozatu bitartean. Menu bereziak eskainiko ditu Gabonetan, eta are bereziagoak izango dira Gabon-egunekoia, Urteberri-egunekoia eta Errege-egunekoia. Kasu denetan

kalitatea bermatuta dago. Gainera, bertan gastronomiaz gozatu ez ezik, ezkontza zibilak eta edozein motako ospakizunak ere egin daitezke. Izan ere, 220 laguntzako areto bat, eta itsasoari begirako terraza ireki bi dauzkate, besteak beste.

ERRESERBAK: Aste-akabuetarako komeni da aurrerapen nahikoagaz eskatzea. Erreserbak telefonoz zein webgunean egin daitezke.

www.tamarisesizarra.com

Gorrondona

Tel: **944 076 918**. Areatza hiribidea, 54. PLENTZIA.



Idi-buztan paella

OSAGIAIAK: Etxeko haragi-saldak, arroza, buztana, ardoa, barazkiak plantxan, sasoiko perretxikoak, buztan-zukua, gatza, olioia.

GURE ESKAINTZA: Leku oso pribilegiatuan dago Gorrondona, Plentziako portuaren alboan. Bista ederrak ditu eta terraza haizetik ondo babestuta dago. Jatetxea sukaldaritza tradizionalen oinarritzen da; gainera, karta modernoa dauka, arrazoizko prezioan. Giro atsegina lortu dute bertan. Gabonetan, ohiko hasierako platerak izango dituzte, paella eta etxeko enpanadakaz batera, baita askotariko azkenburukoak ere. Bertan jateko ez ezik, etxera

eroateko ere prestatzen dituzte paellak zein enpanadak.

ERRESERBAK: telefonoz edo jatetxean. Udan, lekua gordetzeko 24 ordu lehenago eskatu beharko dute talde handiek.

ALGORTAN ERE BAI: Lortutako arrakastari esker, Algortara zabaldu da Gorrondonaren familia. Uribarri jatetxea zabaldu berri dute, Alangobarri kaleko 4. zenbakian. Gorrondonaren ereduari eta filosofiari jarraituko die.

AYOBERRI
Sagardotegia

ERRESERBAK:
94 676 42 57

Urdulliz-Butroe errepidea (Mendiondo auzoa, 5). 48610 URDULLIZ
www.ayoberrisagardotegia.net

GetxoGaso

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

POSTREAK

Txozna jatetxea

Tel: **946 763 471**. Torre-barri, 3. URDULIZ**MENU
BEREZIAK**

Sagar-tarta

OSAGAIAK: Hostorea, errege-sagararak, esnea, irina, arrautzak, abrikot-marmelada eta azukrea.**GURE ESKAINTZA:** Txozna jatetxeko postreak euskal gastronomiako esperientzia eder baten azken ukitua izan ohi dira. Hala, 1981etik, familia-tradizio-ko jatetxe atsegina da Txozna. Etxeko artisau-jakiak prestatzen dituzte, Uribe Kostako eta inguruko produktuakaz, euskal errezetarik onenei jarraituta.

Beraz, probatu beharrekoak dira bertako sartenekoak, indabak eta jatetxearen berezitasunak: harrian egindako txuletoia eta bakailoa pil-pilean.

ERRESERBAK: Talde handiek aste bi lehenago eskatu behar dute. **Restaurantetxozna.es**
txozna@gmail.com

Zurikaldai Neguri

Tel: **944 911 487**. Neguri hiribidea, 9. NEGURI.**GOZO
BEREZIAK**

Txokolate-tarta

OSAGAIAK: Almendra, azukrea, kakao-gurina eta, jakina, txokolate beltza.**GURE ESKAINTZA:** Zurikaldai Neguri gozotegiak askotariko tartak eta turroiak eskaintzen ditu, mimo handiz eta kalitate ezin hobeagoko bertoko osagaiez; eurek egiten dituzte, duela 200 urteko errezeten arabera. Hala, Gabonetako tarta berezienak dituzte: Saint Honoré eta espinakaduna; ohiko

txokolate-tarta, mustafá eta san markosagaz batera. Turroietan, nabarmentzekoak dira Soconusco, Karakas, eta gorringo bikoitzekoa. Gainera, bestelakoak ere badauzkate, barbarako Koñak eta Kadiz urriak. Bestalde, askotariko gozoak ere egiten dituzte, Gloriak, glasetutako frutak eta tartak, besteak beste.

Delikarte gozodenda

Tel: **944 362 038**. Artatza, 28, Negurigane. LEIOA.**GOZO
BEREZIAK**

Dulcey tarta guratsua

OSAGAIAK: txokolate-bizkotxoak, banillazko namelaka-krema, Valrhonako Dulcey txokolatzeko ganatzea eta txokolate-perlak.**GURE ESKAINTZA:** Bikaintasunaren artisauak direla frogatzen dute egunero Delikarten. Leioa-ko gozodendan saltzen diren produktu denak bertan egiten dituzte. Horretarako, aparteko lehengaia erabiltzen dira, kontserbagarri eta koloratzaile barik. Filosofia horri jarraituz, ez dute kimikorik erabiltzen,

ezta produktuen aromarik ere. Adibidez, gozoak banilla-usaina badauka, banilla daukalako da; ildo berean, gurina gurin naturala da, %100ean.

ERRESERBAK: Gehienak enkar-guz egiten dituzte; Gabonetan astebete lehenago eskatuta. **Delikarte.net**

Très Bien gozodenda

Tel: **946 526 670**. Basagoiti etorbidea, 49. ALGORTA.**GOZO
BEREZIAK**

Red Velvet tarta

OSAGAIAK: Gari-irina, azukrea, kakaoa, esne garratza, gurina, arrautzak eta erremolatxa-esentzia.**GURE ESKAINTZA:** Red Velvet tartaren zaporea eta kolore gorria estimatzen dituzte Très Bieneko bezeroek. Baina hori etxeko gozogintzako sormen-txokoak eskaintzen duen aukeratariko bat baino ez da. Ainara, Ainara eta Sherezade euskal jatorriko hiru lehengusina venezuelarrek eta Jenny aberkideak Gabone-

tan gazta-tartak eta urdaiazpiko ogi gazi-gozoak prestatuko dituzte, besteak beste. Gainera, lokalean ardoen, kafeen eta teen karta zabala daukate.

ERRESERBAK: Oro har, egun bi lehenago eskatzea beharrezkoa da; Gabonetan, 3 egun lehenago. **Tresbien.es**

Sukaldean

Negu gorriari aurre egiteko...



8 PERTSONARENTZAKO OSAGIAIAK:

500 ml esne, 500 ml esne-gain, kanela adaxka bat, 300 g intxaur zurituta eta 150 g azukre.

Gabonetako oturuntza berezien protagonista izan da intxaur-saltsa Euskal Herrian urte askoan. Negu gorriko egun hezeei eta hotzei arazo barik aurre egiteko azkenburukoa da krema gozo hori, kaloriaz gainezka. Prestatzeko ez da osagai askorik behar, eta prestateta-lana ez da zaila; oster, ez da arin egitekoa, pazientzia izatea behar-beharrezkoa da ondo egin gura badugu.

Intxaur-saltsa neguko azkenburuko nagusienetako bat izan arren gurean oraintsu arte, beheraka joan da urtez urte bertoko etxeetan. Hala ere, apurka-apurka, intxaurrez osatutako krema gozo horrek bere lekuari heldu dio eta gero eta leku gehiagotan dasta daiteke. Jose Mari Gorrotxategi Tolosako gozogile famatuak azaldu duenez, intxaur-saltsa euskaldunon berezko azkenburukoetako bat da. Antzina, euskal familiek denetarik erabiltzen zuten plater hori egiteko, den-dena aprobetxatzearen edo. Hala, garai haietan bakailaoa gezatzeko likidoa, ogia edo ardoa erabiltzen zuten krema hori prestatzeko. Dena den, errezeta horretatik abiatuta, gaur egungo gustuetara egokitu eta bertsio arinago bat

nagusitu egin da, bost osagai hartzen dituen. Gabonetako oturuntzei egundoko amaiera gozoa emateko, presta dezagun bada intxaur-saltsa on bat! Hasteko, gura beste intxaur zuritu beharko ditugu; egiteko hori da neketsuena. Hala ere, hori aurreratu edo baztertu gura izanez gero, fruituak zurituta ere eros ditzakegu. Behin hori eginda, esnea eta esne-gaina lapikoan berotu eta kanela-zotzaz perfumatu beharko dugu, 5 minutuz. Bitartean, intxaurrek eta azukrea ondo birrinduko ditugu. Txiki-txiki eginez gero, krema arina lortuko dugu; aldiz, zati handiak utziz gero, mokadu lodiagoa izango dugu. Normalean, eskuz egiten den prozesua da hori, mailu edo motrailu bidez. Hala ere, horretarako denborarik ez badugu, makina-birrintzailea edo irabiagailua erabil dezakegu. Ostean, perfumatutako esnea iragaziko dugu kanela kentzeko, eta aurretik txikitutako azukre eta intxaurren nahasketa gehituko diogu esnari. Dena ondo sueztituko dugu 10 minutuz, eta, jarraian, hozkailuan gordeko dugu, 4 orduz. Krema hoztuta dagoenean, intxaur-saltsa ontzietan ipini eta horretaz gozatzeko ordua izango da! On egin! ◀



Zeure bur

Besteentzat beste edo gehiago, zuretzat ere bai. Hau, hori edo hura opari egitea, luze edo labur zer gurako du(t)en edo beharko du(t)en pentsatzeaz gainera... Eta «du(t)en» baino «dudan» galdetuz gero? Aukeran...

Askok euren buruak apaintzeko aprobetxatzen dituzte egun hauek: ilea orraztu, moldatu, garbitu, ebaki, atondu, tindatu... denak balio du Gabon-egun hauetako afarietan edo bazkarietan lirain agertzeko, senide denen aurrean. Batzuek sasoi honetan baino ez dute aukera aita-amakaz, neba-arrebakaz, seme-alabakaz, ilobakaz, lagunakaz... batzeko; elkarrengandik kilometro askora bizi direlako, beharbada. Txukun agertzea izan ohi da egokiena horrelakoetan; «txukun» norberaren arabera izango delarik... Baina, besteek zutaz zer pentsatzen duten alde batera utzita, erabat zilegi da gorputza eta arima alaitu ahal dizkizuten opariak zeure buruari egitea: zuk zeuk zeure burua osasuntsu, ondo, eder ikustea da garrantzitsua. Zuk zeuk zer behar edo gura duzu? ◀

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



OSABIDE Hartz-Klinika

Arantza Etxebarria

Ondo pasa jaietan!

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

PELUQUERIA

ITZIAR OLABARRIA
ile-apaindegia

944 910 380
Amesti, 7 - 48991 - Algorta - GETXO

SUSAN
Ile-apaindegia

Konfiantza osoz!

Gaminiz 2, GORLIZ (Andra Mari)
surfanarrago@gmail.com
946 771 616 - 650 025 762

f t w

ua ondo gozatu

60 minutu dituzu gelatik irtetzen saiatzeko.
Bertan zenbait enigma eta igarkizun BEHATU, AURKITU eta ONDORIOZTATU beharko dituzu, DENBORAZ alde egiteko edo betirako giltzaperatuta gelditzeko aukera emango dizkizutenak.

GETXO
ESCAPE ROOM

Lortuko duzula uste duzu? Ausart zaitez.
Familiagaz edo lagunakaz bizitzeko sekulako esperientzia.
2 eta 6 jokalarari artean.

688 676 459
getxoscaperoom.com

Kasune 12
GETXO

SUGABE
FORMACIÓN

Suhiltzaile izan nahi duzu?
Guk lortzen lagunduko dizugu.

Tel.: 630 789 677
oposiciones@sugabeformacion.com

MARSUN
ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA

UMEEI ILEA EBAKITZEA 5€
AURPEGI HARI-DEPILAZIOA

Ordutegi jarraia:
Asteazkenean, 9:30-19:00
(astelehenak itxita)
Zapatuak, 9:30-14:00

944 608 222
ALANGOETA 6, ALGORTA
peluqueriamarsun.com

REMERK
FISIOTERAPIA & ESTÉTICA
Gipuzkoa 2, Urduliz 685764662/946400141

%50eko deskontua
zure aurpegi-sendotze
tratamenduan.

Ehaki cupoi hau eta hitzordu-eskaera
egiterakoan edo bertara hurbiltzen
zarenean aurkeztu ezazu.

Martxoaren 1era arte baliogarria.
Kupoi bat pertsona bakoitzeko.

Centro Mixto
Ile-apaindegia eta estetika

No bedadeak!
Corputz eta aurpegi-tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laser

946 774 147 • Erribera 23 • PLENTZIA

Hitza emanda

Aurtengoa bertsotan

JOSEBA SANTXO URIARTE
Bertsolari getxoztarra

Atea



*Urtea laburtzeko
hitz bakar batean,
«ate» etorri jat
orain bapatean.
Asmo batzuk beteta,
besteak atean...
baietz barrura sartu
datorren urtean!*

Eta urtea biribiltzeko,
emandako berbari astez
aste bertsoa ipini ostean,
2017. urteari zein hitz
eta zer bertso dagokion
aukeratzeko erronka egin
diegu ALBEko bertsolariei,
berriro ere; bertsolari
bakoitzak aukeratu du, bere
ustez, aurtengoa ondoen
laburbiltzen duen hitza,
harexeri kantatzeko. Berton,
erantzuna, bertso-oparia!

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA
Bertsolari getxoztarra

(k)Atea



*Katalanentzat hartu
nahi nuke tartea,
erdi zabalik utzi
baitute atea.
Nahiz ta «lortu dute» den
asko esatea,
interesgarri dator
hurrengo urtea...*

AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA
Bertsolari itzubaltzetarra

Bagenekiana



*Erruki-begitua
katalanengana,
eskertuz zeru-lurrak
astindu izana;
buztarrian daroez
epika ta drama
ta berretsi deuskue
bagenekiana!*

PERU VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leioztarra


Boto kutxa



*Maiatzaren zazpian
a ze aurkikuntza!
Azaroaren bostez
denok aurreruntza.
Katalunian denak
bultza eta bultza,
gure etorkizuna
baita boto kutxa!*

INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leioztarra

Bozka



*Katalunian bozkatu
kosta ala kosta
ta azaroan irten
zen Uribe Kosta;
Nahiz ta batzuek egin
nahi diguten hozka,
herritar denon arma
bakarra da bozka!*

ARKAITZ GOMEZ AGIRRE
Bertsolari getxoztarra

Catalunya



*Urtean zehar hara
begira gabiltza,
jokoan dutelako
askatasun giltza.
Urrian ikusi da
herri baten hitza
eta estatuaren
erantzun bortitza!*

JONE URIA ALBIZURI
Bertsolari getxoztarra

Endavant



*Ez zen edozein egun
aurten urriak bat,
nahiz geroztik gehienak
izan diren trabak.
Inbidia puntuaz
nire kezka daukat,
guk sekula egingo
al dugun endavant...*

UNAI ANGULO ALDEKOA
Bertsolari getxoztarra

Euskara



*AEK ta KORRIKA
ta euskaltegia...
erabili ditugu
mila estrategia.
Azkena proposamena
da EUSKARALDIA;
ea bihurtzen dugun
asmoa egia!*

KERMAN DIAZ FRANCO
Bertsolari urruñarra

Handia



*Kataluniak eman du
mila irakaspen,
txiki izanagatik
ez garela azken.
Nahiz ta Joaquín filmean
saiaitu zen ahanzten,
segitu behar dugu
etengabe hazten!*

FREDI PAIA RUIZ
Bertsolari algortarra

Katalunia



*Kin Jong-unen zartada,
Trumpen pitxumia,
chiiten oilalokak,
kiriko sunia;
urrunetik hurrera
urnetan burnia,
laborategia da
gaur Katalunia!*

PAULE LOIZAGA LEGARRA
Bertsolari sopeloztarra

Landa



*Aurten mezu ugari
Imanol Landari,
Tosura joan baitira
Ertzain ta garabi.
Baina herri oso bat
dago, ez gara bi!,
babesa emateko
Tosuko landari!*

ITXASO PAYA RUIZ
Bertsolari algortarra

Lasai



*12 hilabete...
nork oroitu denak?
Ondo gordeta daude
unerik onenak;
beraz, ahaztu ditzala
malko eta penak
urte berria lasai
hasi nahi duenak!*

BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leiozatarra

Luze



*Komunikabideek
kristoren arreta;
neurri, gai, doinu eta
errimak erreta;
sarrerak agortuta,
saioak beteta...
Eskerrak lau urtetik
behin den txapelketa!*

GALDER BILBAO MARTINEZ «TXAPI»
Bertsolari udondotarra

Ortzadarra



*Urte laburbilduz
berba baten, pentsa,
politika datorkit,
iluna, traketsa...
Ortzadarra da berba,
buka bedi beltza!
Eta zein dira zure
berba ta ametsa?*

JOSU LANDETA EGURROLA
Bertsolari getxoztarra

Prozesua



*Gizonak egin gaitu
beldurrean hezi,
kolpeka ostenduz bere
hamaika gabezi.
Andra lez egin daigun
mila plan berezi,
hiltzaile oldarkor horrek
ez gaitu merezi!*

DANIEL DE MIGUEL AVECILLA
Bertsolari getxoztarra

Tosu



*Kapitalismoari
azaldu diozu,
Lurra defendatzeko
zaudela sendo zu.
Hartu nire bertsoa
eta mila mosu;
berde segi ezazu
betirako Tosu!*

IÑIGO KORTAZAR ELIAS
Bertsolari algortarra

Tosu



*Getxon berdeguneak
ez direnez asko,
guztioak ditugunak
babestu beharko.
Ama Lurra hor dago,
ez utzi biharko;
eutsi diezaigun,
Tosu betirako!*

IMANOL URIA ALBIZURI
Bertsolari getxoztarra

Txapelketa



*Txapelketaz gabiltza
behera eta gora,
ez dadin izan soilik
noiz-behinkako moda.
Gogoratu dezagun
guztiok gerora:
bertsoa txapelketa
baino gehiago da!*

UNAI MENDIBURU VALOR
Bertsolari getxoztarra

Votarem



*Katalanen urtea
izan dugu aurten,
urnetara bidean:
votarem, votarem!
Esperantza txiki bat
piztu dugu hemen,
ea hurrengo urtean
gu izango garen!*

JOSU ARROYO IZKOA
Bertsolari getxoztarra

155



*Inperio zitalaren
zenbaki kutuna,
amaiera eder bat
zapuztu diguna.
Nola bilakatu da
hain zifra iluna?
Urrun sumatzen dugu
gaur askatasuna...*


Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu hemen. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIAK

Etxeko txikienek Gabonetako oporraldian irakurtzeko ARBI liburu-bilduma osoa eta «Martin, Lea...» liburu-bilduma osoa zozkatuko ditugu.



Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu hemen. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIAK

Bufanda bat

HIRUKA lagun batek eskuz egindako artilezko bufanda urdina zozkatuko dugu



Tarta bat

Itzelezko azkenburukoa osatzeko modukoa, Très Bien gozotegiaren ekimenez.



ERRI GORA ren LAU SASKI ZOZKATUKO DITUGU

Gabon hauetan, hirukakide guztien artean,

Nafarroa hegoaldeko baratza dastatzeko eta euskara bultzatzeko egundoko aukera!

Egin zaitez HIRUKALAGUN edo HIRUKABAZKIDE, eta zuk ere zozketan parte hartu abenduaren 31 baino lehen!

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO:

e-mailez administrazioa@hiruka.eus

telefonoz 94 491 13 37

agerkariaren bidez <http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>

ERRI GORA

35 euro, hamaika onura



Hirukalagun izanez gero, zer lortuko zenuke? Astekaria gainerakoek baino lehenago irakurtzea: eguaztenean, e-mailean jasoko duzu, inprentara bidean dela; eta zozkatzen ditugun egundoko sarietan lehentasuna izango duzu beti. Horrez gainera, HIRUKAren buru eta bihotza izango zara, uribekostar euskaldun biziduna, bertoko informazioan jantzia eta bertoko historiaren protagonista.

Sariak

Liburuak. Diskoak. DVDak.
Umeentzako opari bereziak.
Parapente-hegaldiak.



Jagon zaitezen

Bazkariak. Afariak.
Aste-akabuetako egonaldiak.
Tratamendu estetikoak. Ilea
ebakitzeko txartelak.



Sarrerak

Antzerkiaz, magia eta pailazoen
ikuskizunez, zinemaz, edo
kontzertuez gozatzeko!



Uribe Kostako bihotz, buru, hezur, muskulu
edo odol zaren euskaldun hori, zure bila gabilta!

Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337 • administrazioa@hiruka.eus



Gabonetako erosketak zentzuz egiteko aholkuak

Ohikoan baino erosketa gehiago eta garestiagoak egiten ditugu abenduaren amaieran, Gabonak direla eta. EKA kontsumitzaile-elkarteak data horietan ere «kontsumo zentzuzkoa eta probetxugarria egiteko» zenbait gomendio partekatu ditu.

Krisiaren etorrerak jaitsiera handia eragin zuen kontsumo orokorrean, baita Gabonetako erosketetan ere, 2008an. Ostera, urte batzuk geroago, 2013an eta 2014an, apurka-apurka suspertzen hasi ziren kontsumo horiek. Tendentzia hori gaur arte mantendu da, garrantza, mantso bada ere. Aurtengo Gabonetan, familiako batez besteko gastua 633 eurokoa izango da, espainiar Estatuan; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan gastu hori altuagoa izan daiteke, %5 eta %10 bitartean. Horrela jaso du Deloitte kontu-ikuskaritzako eta aholkularitzako nazioarteko enpresak Gabonetako kontsumoaren gainean egin duen inkesta batean. Dena den, krisialdiak ekarri

zituen zenbait arau eta joera berri Gabonetako kontsumoan. Hala, planifikazio gehiago, bat-batekotasun gutxiago eta opari praktikoagoak ohiko estrategia bilakatu ziren. Azken urteotan gastu garbia nahikotxo igo bada ere, neurri handi batean mantentzen dira praktika horiek. Dena dela, Euskal Kontsumitzaileen Alkarteak (EKA) «Gabonetako kontsumo zentzuzkoa eta probetxugarria egiteko» aholkuak gogorarazi gura ditu:

- Erosketen zerrenda prestatzea, aurretik kontuan hartuta ea benetan behar, aprobetxatu eta ordaindu ahal ditugun. Kontu garrantzitsuak dira erosketak aurreratzea edo denboran banatzea, aurrekontu bat zehaztea eta ez gainditzen ahalegintzea.

- Produktuak eta prezioak alderatzea, saltoki eta gune ezberdinetan.

- Saltoki fisikoetan eskudiruz ordaintzea ahal bada; egiten gabiltzan gastuaz hobeto konturatuko gara, txartelaz eginez gero baino.

- Online-erosketetan, aurreordainketa-txartelaz edo diru-kopuru mugatuko txartelaz ordaintzea, eta ez kontu-korronteari atxikitako txartelaz.

- Jostailuen segurtasuna zaintzea eta bideo-jokoen edukiak eta gomen-datutako adinak ere kontuan hartzea.

- Janaria izoztea, poltsikoa lar ez berotzeko. Gabonen aurretik gehien garestitzen dena elikagaiak dira. Menuak aurretiaz prestatuz, elikagaiak aste batzuk lehenago erosiz eta etxean ondo izoztuz, sano aurreztuko dugu. ◀

VRONDO
ESTANKOA

Zorionak eta urte berri on!

Sabino Arana 67, Leioa ☎ 944 649 233



ZAZPIAK BAT KULTUR ELKARTEA, BERBOTS ERANDION EUSKARA ELKARTEA, ELA SINDIKATUA, AEK, BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA, ITXAS-ARGIA ELKARTEA, IÑAKI BITXITEGIA, TABERNA BERRI, GURE ETXEA TABERNA, TXAKOLI MOTAGANE, LURREN MUSIKAFE, LAIAK, PORTU ZAHARRA TABERNA, TXIBERRI, XURRUT, UNAI, EKIN, AYOBERRI, ALBE, GALP, GETXOGASO, ARTOLOZAGA TAILERRAK, SAIAZ GETARIA, OSABIDE, REMEKI ZENTROA, CIANOPLAN, ANDER DEUNA IKASTOLA, BETIKO IKASTOLA, AIXERROTA BHI, DIDAK HAMILTON, LUBERRI, LAUBIDE PINTURAK, CENTRO MIXTO ILE-APAINDEGIA, GARAIZAR BERRIKUNTZAK, ALDAI, GENERAL OPTICA, GAURKO, LA PLAZA TABERNA, JUAN MARI URDAITEGIA, AINGARA BORDATUAK, EGUNKARIAK PRENTSA, JAN ETA JOLAS, LABORAL KUTXA, ITXASGANE JATETXEA, GETXOKO SCAPE ROOM, JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA, TOKIKOM, TRÈS BIEN, ERANDIOKO ALTZAGA IKASTOLA, SUGABE FORMAKUNTZA, ARTEDRAMA, GORLIZKO UDALA, ITXASGANE PRENTSA, LV COMUNICACIÓN, LEIOAKO KULTUR ETXEA, BARRIKAKO UDALA, SOPELAKO HAURRESKOLA, ELIZPE TABERNA, URDAIBAI BIRD CENTER, LORALDIA, EKO GUNEA, EUREKA ZIENTZIA MUSEOA, TXORIERRI POLITEKNIKA, PRODUCCIONES SERRANO, AZKAYO ERAIKUNTZAK, KOLORE ARTE FLORAL, SOPUERTA ABENTURA, OINUTSIK PODOLOGIA, ALGORTAKO DENDAK, SANCHE EL SABIO FUNDAZIOA, IO ILE-APAINDEGIA, GETXOPHOTO, GOGORA INSTITUTUA, GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA, URGITXIETA JATETXEA, ADOS 12, STUDIO K, ZIPIRIÑE ESKOLA, ZINEBI, SAN NIKOLAS IKASTOLA, ARTATZA-ROMO INSTITUTUA, NUESTRA SEÑORA DE LAS MERCEDES, FADURA IKASTETXEA, MADARIAGA PENTSUAK, TXAKOLI TALLER UPELATEGIA, OTXANDATEGI TALDEA, URIBE KOSTA BHI, EGIZU GETXO EUSKALDUN ELKARTEA, LEIOAKO UDALA, SOPELAKO KURTZIO KULTUR ETXEA, URONDO ESTANKOA, FOTOXABIER, LA KALA TABERNA, ALGORTAKO ALBAITARITZA ZENTROA, JADO IKASTETXEA, SANTÍSIMA TRINIDAD IKASTETXEA, ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA, ERROIA, ZAPACAN, DANATARIK DENDA, CIEN PIES ZAPATADENDA, SETTER LARRAÑAZUBI, URIBE KOSTA EKODENDA, MUGI FISIOTERAPIA, CUATRO PATAS TXAKUR ZENTROA, INDARLAN, SOPELAKO ALBAITARITZA ZENTROA, NEKATUR, AIMHIGH LANGUAGE, SOPELAKO UDAL EUSKALTEGIA, LEMOIZKO UDALA, CASA DE MARINOS URIBE KOSTA HOTELA, SAIGON FUSIÓN JATETXEA, TXORROPE, KAIA, BERANGOKO FRONTOI TABERNA, LOBÓN BITXITEGIA, IFKONSULTING, PARAPENTE BIZKAIA, LEMOIZKO BATZOKIA, KATI ILE-APAINDEGIA, BIZARRETA JATETXEA, UDONDO TABERNA, HONDARTZAPE, GETXOKO KULTUR ETXEA, EKO GIGI-COVI, GEROA IKASTOLA, BOSTAK TABERNA, ALUR ESTETIKA, TXIKI EDER TXAKUR ZENTROA, NEBARREBAK, MILAGROS, NEW TAVERN GORLIZ, ANÍMATE, BOGA GARAGARDOAK, GORLIZKO BATZOKIA, KANTXA KIROL MODA, TXOKO BETI BATERA, CEREBRITO PÉREZ, TOPA TABERNA, JOLASTEN TXAKUR ZENTROA, LASAI TABERNA, SNOOPY, AMETS KAMISSETAK, BEREZI, HER, OSO, HATOR, ATERKI, AJURIA, JOLASAUERE, TANGO ESKOLA, BIKAIN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA EUSKO JAURLARITZA, GETXOKO UDALA, GUAY GUAY, LAUBIDE TABERNA ALGORTA, BASTER-OROBIO, SUSTRAI, BASERRI, SANIKO, INGENIOSO, FLOVAR BITXINDENDA, OINAZPI ZAPATADENDA, KITCHEN ACADEMY, ZIRRI-MARRA ARTE TAILERRA, SOPELAKO UDALA, GOIKOA TABERNA, XIXILI, IZARRA, GORLIZ BIKER, NUEVE LUNAS, ERANDIOKO UDALA, ZIABOGA, ERRIGORA, DELIKARTE, URDULIZKO UDALA, TAMARISES, GOXO BREAK, MEDIASAL 2000, MARSUN ILE-APAINDEGIA, GORRONDONA, TXOZNA JATETXEA, URIOLA CAFÉ, BOGA, TELLAGORRI, BERANGOKO UDALA, URTXINTXA ESKOLA, SUSAN ILE-APAINDEGIA, GUREA TABERNA, BATELA TABERNA, ZURIKALDAI, ITXARTU TALDEA, HIRE ONDOAN PSIKOLOGIA, SOINU MUSIKA ESKOLA, ARTESKOLA, PLENTZIAKO UDALA, DANDAKA JATETXEA, GOIKOLANDA JATETXEA, TXIKIBOLAS, GERONA GROUP BILBAO, LA COMPAÑIA, GETXOLAN...

Urte berri on eta eskerrik asko denoi

...eta HIRUKA Lagun edo Bazkide horri, proiektu hau egiten eta zabaltzen laguntzen gaituzulako, datorren urtea ederragoa izan dadila opa dizugu!

hiruka

General Optican

DENA
%50
MERKEAGO

EHUko ikaslea edo langilea zara? Edo HIRUKAren bazkide edo HIRUKAlagun?
Bada zuretzat egindako beherapenak balia itzazu!
Sartu eta ikusi.



* Eskaintza hau ezin zaie lotu beste eskaintza edo sustapenei;
EHUren Leioako campusean egindako erosketei bakarrik
dagokie. Bertoko kide direna baieztatu beharko dute ikasleek
eta langileek, Unibertsitatearen agiri ofizial bat aurkeztuz.



General Optica